

EUSKARAKO ZINEGOTZI ESKUORDEAREN EBAZPENA.

DIRULAGUNTZA IZENDUNA GARABIDE ELKARTEARI

Garabide kultur elkarteak lankidetzan aritzen den gobernu kanpoko erakunde bat da. Zehazki, lankidetzaren esparruan, munduko hizkuntza gutxiak biziberritzeko prozesuak bultzatzen ditu, euskararen esperientziatik abiatuta. Izan ere, euskararen normalizazioaren inguruan azken 40-50 urteetan egindako lana oso handia da, urrats garrantzitsuak eman dira eta beste herri askorentzat erreferente bihurtu da. Horrela, euskararen biziberritzean metatu dugun ezagutza altxorra da munduko hizkuntza gutxi askorentzat, are gehiago hizkuntzen galera inoiz baino handiagoa den garai honetan.

Garabide elkartearen eginkizun nagusiak ondokoak dira:

- Garapen-bidean dauden herrietako hizkuntza-komunitate gutxituekin lankidetzan aritzea, euskararen eta euskal kulturaren garapen-esperientzien trukaketan oinarrituta.
- Lankidetzaproiektuak garatzea munduko hegoaldeko hizkuntza-komunitate gutxituetako eragileekin.
- Euskararen eta euskal kulturaren garapenean diharduten erakundeek beren esperientzia hizkuntza-komunitate gutxituei eskaini diezaieten sustatzea.

Horrela, elkarte honek hizkuntza-komunitate gutxituen beharrak identifikatu ondoren, zubi-lana egiten du euskalgintzarekin, euskararen esperientzia emateko. Batez ere, lan-arlo hauetan antolatzen du bere jardura: prestakuntza bai beren herrialdeetan eta bai Euskal Herrian, etengabeko aholkularitza eta sentsibilizazio- eta dibulgazio-ekintzak.

Lan hau Euskal Herriko zenbait erakunde eta administrazio publikoren lankidetzarekin bideratzen dute. Izan ere, euskararen normalizazioan dugun esperientzia partekatzeaz gain, hizkuntza gutxiak dituzten komunitate hauetako esperientzia ere ekartzen baita hona. Azken finean, Garabidek bultzatzen dituen proiektuak ezagutza eta esperientzia trukean oinarritzen dira: euskararen normalizazioan ari diren entitate publiko eta pribatuak asko dute eskaintzeko baina baita ikasteko ere.

Garabide kultur elkarteak 2005. urtean sortu zen eta 2007. urtean antolatu zuen bere lehen Truke Programa, euskararen esperientzia bertatik bertara ezagutu eta hizkuntza biziberritzeko prestakuntza estrategikoa eskaintzeko hainbat hizkuntza-komunitateri. Ordezkaritza maia bat etorri zen orduan Euskal Herrira, formazio intentsiboko ekimenetan parte hartzera. Aurrerago, 2018an, Diplomadunera Maia antolatu zen Méridan eta Euskal Herriko zenbait euskalgintzako eragilek parte hartu zuten bertan. Hortik sortu zen Yuuyum Kultur Elkarteak, orduz geroztik Garabiderek lankidetzan ari dena.

Geroztik, hainbat urrats egin dituzte Yucatángo penintsulan maia hizkuntza sustatze aldera. Besteak beste, Maia Kultura Sustatzeko Udal Institutua sortu da eta Méridako udal gobernu lanean ari da maien hizkuntza biziberritzeko udal plana egiteko institutu honen bitartez.

Zehazki, proiektu honen bitartez, ekintza hauek garatzen ari dira 2023. urtean:

LANKIDETZA BIDAIA MERIDARA, garapena eta inplementazioa adosteko.

II. MERIDAKO PLANA ABIARAZTEKO ETENGABEKO AHOALKULARITZA, Garabidek eskainiko duena, bai Institutu Maiako eragileei, bai udaleko langile eta ordezkariak eta baita bestelako sustatzaileei ere.

III. YUUYUM ELKARTERAK AITORTUTAKO DEDIKAZIOA WAYÉ MUGIMENDU SOZIALA DINAMIZA DEZAN.

IV. MERIDAKO HIZKUNTZA PLANAREN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENAK

V. MERIDAKO HIZKUNTZA PLANAREN ZIRRIBORROAREN ONARPENAK Euskal Herriko esperientzian oinarrituta.

Euskara Zerbitzuarentzat proiektu honek interes nabarmena du Donostiak euskara sustatzeko egindako bidea eredutzat hartu dutelako Mexikoko hiri horretan. Izan ere, euskara berreskuratzeko egindako lanak nazioartean oihartzuna izatea eta nazioarteko panoraman erreferente gisa jartzea, Donostiaren irudiarentzat onuragarria da oso. Aldi berean, esperientzia-truke horrek ikuspegi berriak zabalduko dizkio Donostiako Udalari eta euskararen erabilera indartzen joateko beste lan-ildo batzuk ekar diezazkiguke. Gainera, pertsonen arteko bizikidetzarako berebiziko garrantzia du hizkuntza gutxituak berreskuratzeko eta, zentzu horretan, hizkuntza-komunitateen arteko esperientziak trukatzeko oso positiboa izan daiteke.

Proiektu honek duen nazioarteko izaera kontuan izanik, ez da aukerarik ikusten Euskara Zerbitzuak indarrean dituen dirulaguntza deialdietan sartzeko. Izan ere, lehia-deialdi guztiek helburu dituzte Donostian bertan eta donostiarrei begira egindako jarduera eta ekintzak (auzoetako euskara batzordeentzat dirulaguntzak, Udalaren erregistroan izena emana duten irabazi asmorik gabeko elkarsteentzat dirulaguntzak edo Donostian egiteko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak).

Dirulaguntzen Lege Orokorreko (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa; aurrerantzean, DLLO siglaz aipatuko dugu) 22.2.a artikuluari jarraituz, Udalak bere aurrekontuetan izenez ezarritako dirulaguntzak eman ahalko ditu, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araudian jasotako baldintzetan.

DLLOko 28. artikulua, berriz, adierazten du dirulaguntza emateko ebazpenean eta, hala egokituz gero, dirulaguntza horiek bideratzeko hitzarmenetan, aplikagarri diren baldintzak eta eginbideak ezarriko direla. Hitzarmenak izango dira aurrekontuetan izenez ezarritako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Dirulaguntzen Araudi Orokorreko (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21koa; aurrerantzean, DLAO siglaz aipatuko dugu), 65.3 artikuluari jarraituz, dirulaguntza izendunen kasuan, dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena, dirulaguntza ematea arautzeko oinarri izango dira, DLAOan ezarritakoaren ondorioetarako. Ebazpen horretan edo, hala egokituz gero, hitzarmen horretan, sartuta egon beharko dira aipatu 65.3 artikuluan adierazitako edukiak; gogoan izan beharko dira, orobat, onuradunek hartu beharreko betebeharrak eta eginbideak, DLLOko 14. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Donostiako Gobernu Batzarrak 2011ko ekainaren 17an onartu zuen Eskuordeturiko Eskumen eta Ahalmenak Erabiltzeko Araudiari jarraituz, zinegotziei dagokie espedienteak izapidetu eta ebazteko egintzak egitea beren eskuduntzako gaitetan, eta, horrenbestez, dirulaguntzak emateko ebazpenak izenpetzea.

Honenbestez, Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 6an emandako eskuordetza erabiltza

EBAZTEN DU

1.- Dirulaguntza ematea, onuraduna, laguntza mota eta onartutako zenbatekoa

10.000 euro ematea GARABIDE Kultur Elkarteari (IFK: G-20890315), Donostiako Udalaren 2023ko ekitaldiko aurrekontutik eta dirulaguntza izendun moduan.

GARABIDERi dirulaguntza izenduna ematea, Donostiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren (2021-2023) barruan aurreikusia dago. Plan horretan helburu estrategikoak eta helburu espezifikoak zehazten dira:

Helburu estrategikoa: Euskara sustatzea.

Helburu espezifikoa: Euskararen irudi positiboa eta marka zabaltzea. Munduan beste hizkuntza batzuentzat eredu izanez eta beste hizkuntzetatik ere ikasiz. Elkarlana sustatzea.

2.- Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntzaren helburu zehatzak hauek izango dira:

LANKIDETZA BIDAIA MERIDARA, garapena eta inplementazioa adosteko.

II. MERIDAKO PLANA ABIARAZTEKO ETENGABEKO AHOLKULARITZA, Garabidek eskainiko duena, bai Institutu Maiako eragileei, bai udaleko langile eta ordezkariak eta baita bestelako sustatzaileei ere.

III. YUUYUM ELKARTERI AITORTUTAKO DEDIKAZIOA WAYÉ MUGIMENDU SOZIALA DINAMIZA DEZAN.

IV. MERIDAKO HIZKUNTZA PLANAREN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

V. MERIDAKO HIZKUNTZA PLANAREN ZIRRIBORROAREN ONARPENA Euskal Herriko esperientzian oinarrituta.

3.- Zenbatekoa eta aurrekontu kreditua

Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuko 2023ko aurrekontuko 481.11 kontu-sailari egozte 10.000 euroko gastua, "Garabideri dirulaguntza".

4.- Onuradunak

a) GARABIDE Kultur Elkartea onuraduntzat jotzen da, dirulaguntza hau emateko arrazoia den jarduera egin duena izanik. Gainera, erakunde onuradunari ez dagokio Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Zehatzago esanda, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru kopururik. Era berean, egiaztatzen du ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla-eta. Egoera hauek, halaber, ordainketak egiten diren unean egiaztatu beharko ditu.

b) Era berean, 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duena aintzat hartuta, entitateak egiaztatzen du:

1. Diruz lagundutako jarduerak ez direla baztertzailak sexu arrazoiengatik edo bazterketa anizkoitza eragiten duten faktoreengatik, 3.1 artikuluan azaltzen direnak.

2. Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea galarazten dion zehapen administratibo edo penalik, sexu-bereizkeria egiteagatik jarritakorik edo gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiko araudia ez betetzeagatik.

3. Entitateak aitortzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorreko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.5 artikulua aplikatuta, ez dagoela behartuta berdintasun plana egin eta ezartzera.

5.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Dirulaguntza hau arautuko du, dirulaguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21koa) ezarritakoak ere (publizitate eta lehia printzipioei eragiten dien hartan izan ezik), bai eta administrazio zuzenbideko gainerako arauetan eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoak ere.

6.- Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administrazio, edo erakunde publiko nahiz pribatuk, helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

7.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak

GARABIDE kultur elkarteari dirulaguntzaren %70a, dirulaguntza ematea onartutakoan bertan ordainduko zaio, eta gainerako %30a, behin 2023rako aurreikusitako jarduerak burututa, dagozkion zuriketarako agiriak egiaztatu ondoren.

Zuriketa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 31n bukatuko da.

Horretarako, honakoak biltzen dituen justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1.- Diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia, dirulaguntza onartzean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena. Egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira oroitidazkian. Oroitidazkiaren edukia ondorengo hau izango da gutxienez:

- Programaren edo proiektuaren izena.
- Dirulaguntza zein helburutarako eman zen.
- Egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.
- Proiektua aurrera eramatean egindako aldaketak.
- Dirulaguntzaren hartzailleen datuak, sexuaren arabera bereiziak.
- Euskararen erabileraren betetze maila.
- Ondorioak

2.- Egindako jardueren kostua justifikatzeko ekonomia oroitidazkia. Eduki hauek izango ditu:

- Diru sarreren eta gastuen balantze laburtua, eta hasierako aurrekontuaren aldean gertaturiko desbideratzeak.

- Egindako gastuen zerrenda sailkatua, kontzeptuen arabera antolatuta eta guztizkoak zehaztuta. Zehaztuta izango ditu, orobat, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data.

- Fakturak edo pareko frogak balioa duten agiriak; eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztagiria.

- Hala badagokio, zerrenda sailkatuan sartutako kostu orokorrak edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adierazi behar dira.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuen zehaztasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

- Hiru aurrekontu, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31.3 artikulua aplikatzen bada.

- Hala badagokio, itzulketa ordaintzearen gutuna, aplikatu gabeko geldikinen kasuan; bai eta haietatik eratorritako interesak ere.

- Onuradunak egiaztatu beharko du betetzen dituela ondorengo legean aipatzen diren ordainketa epeak: 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Galera-irabazien kontu laburtua, hala aurkez dezaketen elkarteen kasuan, Kontabilitateko arauen arabera, aipatutako Legearen Erregelamenduak 26. artikuluan zehazten denarekin bat.

- Kontabilitate-araudiaren arabera, galeren eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten kontabilitate-sozietateen kasuan, ordaintzeko legezko epeak bete direla egiaztatu beharko da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiri bidez. Ziurtagiri horrek enpresa bezeroaren ordainketen benetako epeari erantzungo dio, enpresa hornitzaileari aldeztu aurretik kobratzeko edozein finantzaketa alde batera utzita.

3.- Aurreko idatz zatietan adierazitako agiriak, eskainiko diren ereduak jarraituz aurkeztuko dira.

8.- Kontabilitate liburu eta erregistroak, dirulaguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak

GARABIDE kultur elkarteak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioako organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europar Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

9.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira honako hauek: indarrean diren arauak jarraituz egoki justifikatu diren, beharrezkoak diren, eta dudarik gabe proiektu edo jardueraren garapen normalari eta izaerari erantzuten dietenak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eroste kostua inoiz ere ezingo da izan merkaturako balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko da ebazpen honetako 7. atalean aipatutako justifikatzeko epea bukatu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa 40.000 euro (gehi BEZa) baino handiagoa baldin bada, obra gauzatzeagatik kostuaren kasuan, edo 15.000 euro (gehi BEZa) baino handiagoa, ekipo ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoak ematen duten enpresek emandako zerbitzuen kasuan, erakunde onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste hainbeste hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna jasotzeko konpromisoa hartu baino lehen, salbu eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkaturan ez bada hornidura edo zerbitzua emango duten aski erakunderik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bazen.

Hauek ez dira inola ere dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekaratuak eta administrazio zigorrak nahiz zigor penalak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.
- d) Zergak, berriz, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira, baldin eta dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen baditu.

Dirulaguntza jaso ahal izango dute diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuek, oro har onartzen diren kontabilitate printzipio eta arauen arabera zentzuzkoa den zatian, eta, betiere, kostu horiek jardura egiaz egiten den aldiari dagozkion neurrian.

10.- Berdintasunaren bermea

1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena bete beharko da.

Dirulaguntza jasotzen dutenek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko dituzte. Ildo horretatik, ez dute hizkuntza modu sexistan erabiliko, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu beharko dute. Genero estereotipodun edukiak saihestuko dira. Emakume adituak eta hauen praktikak ikusaraziko dira eta albisteetan gizon eta emakumeen presentzia orekatua ziurtatuko da. Aldi berean txostenik, estatistikarik edo/eta datuen bilketarik egingo bada, genero ikuspegia kontuan hartuko da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak gehigarri gisa, erakunde onuradunek nahitaez azaldu beharko dute Berdintasunaren Eranskinean nola hartu diren kontuan diruz lagundutako proiektuaren faseetan berdintasun araudiaren eskakizunak.

11.- Emandako dirulaguntzaren berri ematea

Erakunde onuraduna behartuta dago diruz lagundutako jarduerak dela-eta erabiltzen dituen karteletan, plaketan, material inprimatuetan eta bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan Donostiako Udalaren logotipo ofiziala sartzera.

12.- Ez betetzea eta itzulketak. Ezarritako baldintzak ez betetzearen mailak zehazteko irizpideak

Jasotako diru kopuruak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, eta laguntza edo dirulaguntza ordaindu zen unetik itzulketak egin behar dela erabakitzen den unera bitarteko berandutze interesak eskatuko da, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikuluan ezarritako kasuetan.

Proportzionaltasun printzipioa aintzat hartuta, ez betetzeak mailakatuko dira, irizpide hauek aplikatuz:

- Erakunde onuradunaren betetze maila guztiz betetzera nabarmen hurbildu bada eta erakunde horrek egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzera argi eta garbi bideratutako jarduna egin duela, diruz lagundutako jarduerari zehazten zaion ez betetzearen ehunekoaren baliokidea den dirulaguntzaren ehunekoa izango da itzuli beharreko zenbatekoa. Aurrez, dirulaguntza eman duen organoak dagokion espedientea abiaraziko du.
- Dirulaguntza kobratu eta gero, Udaleko zerbitzuek finantza egiaztatze edo kontrol bat egitean agerian geratzen bada egindako gastu guztiak edo zati bat ez direla ordaindu, eta dagozkien hartzekodunek ordainketa eskatzeko eskubidea badute, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, proportzionaltasun printzipioa aplikatuta. Horretarako, dirulaguntzaren zer zati itzuli behar den zehazteko, kontuan hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastu egotzien guztizkoarekiko ordaindu gabeko gastuak osatzen duten proportzioa.
- Diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak elkartzen badira nahiz gastu aurrekontu jakin bat erreferentziazat hartuta ematen bada dirulaguntza eta, azkenean, justifikaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada, itzuli egingo da diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaineko soberakin hori, eta dagozkion berandutze interesak ere eskatuko dira.

13.- Norberaren ekimenez dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza eman duen organoak dirulaguntza itzultzeko eskaera egin baino lehen, erakunde onuradunak bere borondatez itzuli ahal izango du. Behin dirua sartu eta gero, erakunde onuradunak dirulaguntza eman duen organoari bidali beharko dio diru sarreraren egiaztagiraren kopia bat, idazki batekin batera. Idazki horretan zehaztuko dira zer proiektutarako eman den laguntza, erakunde onuradunaren izena, zenbatekoa, eta diru sarrera zergatik egin den. Dirua norbere borondatez itzultzeak ez du kentzen berandutze interesak kitatu beharra. Interes horiek dirulaguntza ordaindu zen egunetik erakunde onuradunak egiaz itzuli duen arte kalkulatu da.



14.- Arau hausteak eta zigorrak

Dirulaguntzen Lege Orokorreko 56. artikuluan eta hurrengoetan eta haren garapenerako xedapenetan xedaturikoa beteko da alor honetan.

Administrazio bideari amaiera emango diote zigorrak jartzeko erabakiek.

15.- Jakinarazpenak

Erabaki honen berri ematea GARABIDE kultur elkarteari.

Donostian, sinaduraren egunean

KULTURAKO ETA EUSKARAKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO TEKNIKARIA